# UMEAK

EZ, umeakanako enaz biotz-igar, zabal ta txeratsu baño. Maite dodaz, amak baizen maite, kuŕun. Ene biotz-ondoan abaro berezia dabe.

Eta zer dala-ta onen maite ete dodaz? Bein baño geyagoz itandu dautsot neure buruari. Ta galde onek bere mamiña dau. Oŕelako maitasun-ondaŕik be eztabenak saŕiro dakustaz, arpegi iĺun eta muŕitzak. Eta kolkorako diñot: Onek etxok maitasun izpirik, arek etxaukok biotzik.

Nik, ostera, maite dodaz. Oi! Maite-erazten daben zerbait ba dabe begi txatxuetan; ezpan gañeko laŕosetan maitagaŕi yatan ezer dakust. Ames zoragaŕi baten diztirak ez ete doguz?

Zintzo ta bakuntasunak, toles ta amaŕu - bakotasunak, suge liĺurazleak txoria lez, bere sare artean nastetan gaitue; berezko eratortze dabe ta. Nik leraz maite ditut tasun oneik; eurok dira nire biotzeko taupada ta pilpira oroen bizimaña.

Gizona onen maitagaŕi dagien tasunok, baŕiz, edonogan eztaurkiguz. Umiekan bakar-bakaŕik; aurtxoen jarauntsi baidira. Ona emen nire maitasunaren zio. Maitasun garbia, neguz Gorbei bizkaŕera pilpilka erausten

diran edur - malutak letxe. Irabazkeri bagea, atsegin -sarizkoa.

Saŕi, baña, min dot biotzean; sasi-eloŕiak eztendu daustela dirudit. Sasi-eloŕiak, oŕaitiño, eztira izan eztenka mindu nabenak eta baŕuan odol-ixuria sor-eraso daustienak. Ez, leia biziz maite dodazan umetxoak dira nire miñaren eŕudun.

Noizik-bein, txangora urten oi gara. Aize osasuntsua birikiai bizigaŕi bai-yake. Askotan, Bilbao-txokoetan zear eta bere saietsetako eŕitxoz ibilki, umetxo aldrakaz topo dagigu. Ta nire biotz taupada lasteŕagotzen yat. Zauskada dagistan zerbait digart soin-ataletan.

Begi zoliz, sen galduaren ereduan, luzaro egoten nayake begira. Eŕugetasunaren ego-durunda nik sumau gura. Bere arzurizko soiñaren edeŕean begiok ase nai.

Baña ez; eztot iristen gurari zindoa. Bere soñaren itzalik be ez da nabari. Aintxiñatxu bai-zan egaiztu. Ume onein biotz-zugaitzetan eukon abia, itxia dau. Oi zintzo-aro, labuŕa aiz! Ire bizi epea doken mingila!

Eztot aurkitzen zintzotasunik, gogo eŕugerik. Eta onexek saminduten nau. Abia txori barik, biotza maite barik, adaŕa ostoz biluzik, lilia usainge lez, dakustaz ume gazteak. Eta bilduŕa damoste txoririk bako abi oneik. Baña onetzaz, J. l. uŕengo batean.

IGOTZ

# UMEAK

GAUR GIZARTE gaizto! Eten baga zitala darion ituŕi ez azanik, ezin uka. Jon'ek Patmo eritxon ugartean, zorabio-aldiz, ikusitako ematxaŕa dirudik. Zantarkeri-ardoz moskortua, birao-izenez kunkuin, uŕe ta iztaŕiz apaindua, eskuan be uŕezko ontzia iguingaŕiz ta izorkeri-satzez gañezka, saspi buru ta amar adaŕeko bidutzi baten gañean eseria.

Umeak basa labanduz egiñiko ontzi dira. Ta zori gaiztoko gizarte onek ontzi oneitan, tantaka-tantaka, jausten izten dau bere zitala, edena edo benenoa. Gabaz ortzetiko iruntza, izar-negaŕa, mao klabelin-kolkora beratzen dan letxe. Gazteak, baŕiz, txikitan, edozer artu, datorkioenari eskuak ezaŕi dagie-ta.

Ona Selgas jaunak diñoana: agureak, neskatoak gaiztotzen dabez; atsoak, ostera, mutil gasteak. Egia ete? Nik ez dakit zaŕak onen besteko nabarmen-indaŕa dabenik. Aitak semeari, iltekoan, zer-edo-zer itxi oi dautso. Auŕetikoak beste ainbat atzetikoai. Ta belaunaldi ontako gizasemeak zer lagako ondorengoai? Auxe: gaiztakeri, goŕoto, izarkeri, zantarkeri, alkar-ilte, zikoizkeri, dirana. Ituŕi loiak, ur loia.

buruak adimenez argitu diranekoxe, eŕugetasunak ige dagi. Goŕoto ete dira biok? Alan dirudi azalez.

Egi erdiragaŕia: adimen-argiak gure bizitz-osertzea arpegia erakutsi orduko, eŕugetasunak bere edur-soñ bestaldeko mendi ostean gordetan dau. Gaba ta egunaren senera dira. Alkaŕaz bizi ezin. Lur au ezta, ez, eŕugien atsegintoki; umetxoentzat, saspi oŕileko umetxoentzat bez. Geyenik be, egun bateko lorak dira, kukulu aratzak eguzkimoxuz oraindiño edegi barik, iĺak. Jaioaz damutu ete? Lora eŕukaŕiak! Zuona bizitz iĺaun eta utsala!

Gizarte nabarmen onek dana usteldu bear dausku. Noz arte iraungo, izaki gaizkiñok, gaiztakeriz okitu baga? Gatxa, ase-eziña dirudik! Oñaŕi oro azpikoz-gora jaŕi gura. Ona umeak be azpiak janda, zintzotasuna lotsagaŕiro orbanduta. Adur iguingaŕia darion zital-ituŕi ori noiz agortuko ete da?

Ara sagar-ondoa igaliz astun. Baita batzuk baditu umo-auŕetik ustelduak. Ikusirik, biotzean tamal-zauskada dargu. Bardin gaurko umeak be: oraindik eze, baña ustel. Eta niri beñik-bein baŕua gaŕazten daustie.

Len baratz eder ziran biotzak uberka zikin biurtuta. Lili artean erensugeak jayo? Ara beintzat: zein maltzuŕak dozuzan saspi, zortzi ta bederatzi urteko begi oŕeik! Zein itz loyak ebagiten dautzuezan euren espanak!

Nok igaŕi zer uste daben buru oŕeik, zelako asmoak irakin dirakien kasket txiki oŕeitan? Zelako izketaldiak daukiezan gaztez gizonduok! Begirakun ikaragaŕia, lotsagabea bai dabela bederatzi, amar eta amabi urteko emakumok! Gaiztakeriaren sort-oeak dirudie. Ta ni bildur naz.

IGOTZ

# UMEAK

GAUR GIZARTE gaizto! Eten baga zitala darion ituŕi ez azanik, ezin uka. Jon'ek Patmo eritxon ugartean, zorabio-aldiz, ikusitako ematxaŕa dirudik. Zantarkeri-ardoz moskortua, birao-izenez kunkuin, uŕe ta iztaŕiz apaindua, eskuan be uŕezko ontzia iguingaŕiz ta izorkeri-satzez gañezka, saspi buru ta amar adaŕeko bidutzi baten gañean eseria.

Umeak basa labanduz egiñiko ontzi dira. Ta zori gaiztoko gizarte onek ontzi oneitan, tantaka-tantaka, jausten izten dau bere zitala, edena edo benenoa. Gabaz ortzetiko iruntza, izar-negaŕa, mao klabelin-kolkora beratzen dan letxe. Gazteak, baŕiz, txikitan, edozer artu, datorkioenari eskuak ezaŕi dagie-ta.

Ona Selgas jaunak diñoana: agureak, neskatoak gaiztotzen dabez; atsoak, ostera, mutil gasteak. Egia ete? Nik ez dakit zaŕak onen besteko nabarmen-indaŕa dabenik. Aitak semeari, iltekoan, zer-edo-zer itxi oi dautso. Auŕetikoak beste ainbat atzetikoai. Ta belaunaldi ontako gizasemeak zer lagako ondorengoai? Auxe: gaiztakeri, goŕoto, izarkeri, zantarkeri, alkar-ilte, zikoizkeri, dirana. Ituŕi loiak, ur loia.

Begipean jarten yaken oro islatzen daben antzikur edor ispiluak doguz umeak. Gaiztakeria baño ez dakuse, ta zer islatuko? Dakusena bera, gaiztakeria. Bai, gaiztakeria zabal-zabal detza auŕen begi aintxinean, edozein ordu ta tokitan. Uda-aldera, gure itxas-ertzetako ondartzak aragi-piḻo doguz, Eguzki gurtzaleak batzar dagien toki biurtuak. Eta biran ume-aldrak jolasketan, lizunkeri-antxikuŕa begipean dabelarik.

Ai, ume gaxoak! Eŕukiz nozue. Ordo dakit. Zuek etzarie, oso gaiztotu ta zenduen gauzarik edeŕena galdu ba-dozue be, eŕudun. Ez umeak eztaukie oŕen eŕua. Gaztetan adimen mea dabe. Ta oraindik, lenengo urtietan beintzat, ez dira ona ta txaŕa berezitzeko beste, askotan txaŕa on-jantziz apainduta yatorke begira-ta. Eztia artzen dabelakotan, zitala edaten dabe; ta onegaz oartzen diraneko, gatxa osa-nekeza da; euren birikiak, biotza, kirioak, gorputz gustia zitalak artuta daukiez; osasunik eztabe. Eŕugetasuna galdu da; osasuna baŕiro be lortu daike; eŕugetasuna, ostera, bein galtzera ezkero, iñoz be ezta eskuratzen. Eta onen eŕua umeak eztaukie, beti zorionaren jaube izatea baño gogotsuago ezer eztabe opa be ta. Gizartea, gurasoak dira eŕudun.

IGOTZ

## IRAKURLEA

**Datoŕen urterako «Karmen'go Argia»ren arpide baŕiak bilatzen asi zaite; zeure etxeko, senide, ezagun eta eŕitaŕen artean eztaukazu Karmen'go Ama gozoa ta gure Euskera edeŕa maite dauanen bat? Erakutsi egiozu «Karmen'go Argia» ta arpidetu egizuz datoŕen urterako.**